# Erabilera gida.

# Baimenen zerbitzua.

## II. zatia: Baimendutako zerbitzu bat nola erabili

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

# Aurkibidea.


- 1.- Sarrera
- 2.- Adibide praktikoa. Baimendutako zerbitzu bat nola erabili

# 1. Sarrera.

Jarraian baimenen zerbitzua erabiliz egoitza elektronikoaren beste erabiltzaile baten kontura izapideak nola egin zehazten duen prozesuaren adibide oso bat ematen da. Era berean, *"Erabilera gida. Baimenen Zerbitzua. Adibidea: Nola baimendu"* agiria kontsulta dezakezu. Bertan, zerbitzu bat nola baimendu azaltzen duen adibide praktiko bat ematen da.

Hona adibidean azaltzen diren oinarrizko kontzeptuak:

**- Baimen emailea:** egoitza elektronikoaren erabiltzailea, beste bat (baimendua) baimentzen duena zerbitzu telematiko jakin batzuk erabiltzeko. Baimenduak egindako izapideek baimen emaileak eginda baleude bezala balio dute.

**- Baimendua:** egoitza telematikoaren erabiltzailea, zerbitzu telematiko jakin batzuk erabiltzeko gaitua. Baimenduak egindako izapideek baimen emaileak eginda baleude bezala balio dute.

- Baimen bat aktibatu ahal izateko, **"Baieztatua"** egoeran egon behar du.

Jarraian adierazten den adibidean:

- Baimendua “A-Pertsona Juridikoa" erabiltzailea da, legezko ordezkaria (A-Pertsona Juridikoaren L.O.) da.
- Baimen emailea “B-Pertsona Juridikoa" erabiltzailea da, legezko ordezkaria (B-Pertsona Jurikoaren L.O.) duena.
- "Borondatezko Ordezkarien Erregistroa" izeneko zerbitzua erabiltzeko baimena aktibatzen da.

Adibidean biak pertsona juridikoak badira ere, baimen emailea zein baimendua pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke.

# 1. Sarrera.

Erabiltzailea egoitzan identifikatu ondoren, baimenen zerbitzuari lotutako ekintza guztiak menu nagusiko bi aukera hauetatik abiatuta egiten dira:  **“Nire baimenduak”** eta **“Nire baimenak”.**




**“Nire baimenduak”** baimen emaileak baimenak kudeatzeko erabili behar duen aukera da, egoitzaren beste erabiltzaile batzuek (baimenduek) baimen emailearen kontura beste eragiketa batzuk egin ditzaten.

**“Nire baimenak”** baimenduak erabiltzen duen aukera da. Bertatik, egoitzaren beste erabiltzaile batzuen kontura izapideak egiteko hainbat baimen onartu, atzera bota, egiaztatu eta aktibatzen dira.

# 2. Adibide praktikoa. Baimendutako zerbitzu bat nola erabili.




Baimenduak egoitzara sartu eta **"Nire baimenak"** aukera hautatzen du.




**"Nire baimenak"** aukeratik, dauden baimenak kontsulta daitezke, bai eta horiek onartu, atzera bota edo, baimen prozesua ondo bukatu bada, aktibatu ere.

Sakatu kasuan kasuko **"Baimen emailearen NAN/IFZa"** aukeran, hari lotutako baimenen egoera kontsultatu ahal izateko.




Horrelako egoeran, honakoa egiaztatu ahal dugu:

- ”**ALHAO"** zerbitzurako baimena "**Berretsitako egoeran**" dago eta, beraz, aktibagarri dago. Hortaz, baimenduak baimen emailearen kontura erabil dezake.
- ”**Errenta - Ondarea Banakakoak**” zerbitzurako baimena izapidetzen ari da **(”Hasita**"). Baimen emaileak baieztatu egin behar du aktibagarria izateko.

  Ondorioz, baimenduak baimena aktibatzen badu (aurreko pan tailako ikono a sakatuta), baimen emailearen izenean besterik ezin izango du jardun, " **ALHAO** " zerbitzuari dagokionez.

Aurreko pantailara joateko, sakatu "**Itzuli**".




Baimen emaile bati lotutako baimena aktibatu ahal izateko, sakatu **Aktibatu baimena** .

Gogoratu **Aktibatu baimena** piztuta dagoenean baino ezin dela aktibatu.




Baimena aktibatuta dagoenean, egoitzak horren berri ematen du **identifikazio atalean**.
Baimendu ez diren zerbitzuak ezgaituta agertzen dira, hurrengo orrialdean adierazten den bezalaxe.




Zerbitzu bakoitzaren funtzionamendua ohikoa da.

1. Sakatu "**Izapideak online egin**", baimendutako zerbitzua erabiltzea izateko
2. Nahi duzunean, baimen emailearen kontura eragiketak egiteari utzi diezaiokezu, " **Baimena bukatu** " sakatuta.

# Eskerrik asko AFAko zerbitzu telematikoak erabiltzeagatik.

**Informazio gehiagorako:**

https://e-s.alava.net/

diputacióndigital@alava.net